

2022ko MARTXOAREN 11ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Martxoaren 11 Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna da. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak, adierazpen instituzional honen bidez,

ERABAKITZEN DU:

1. Adieraztea ETAk eta beste erakunde terrorista batzuek (GALeK eta eskuin muturrari, ezker muturrari edo jihadismoari lotutakoek, esaterako) hainbat hamarkadatan jasanarazitako indarkeria terrorista, bidegabea eta legez kontrakoa izateaz gain, giza eskubideen urraketa handia dela, eta demokraziaren eta bizikidetzaren aurkako mehatxu larria.
2. Erakundeok terrorismoaren biktimei babesa eta elkartasuna ematen jarraitzea, eta haiekin eta haiek ordezkatzten dituzten elkarte eta erakundeekin lan egitea egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea izateko duten eskubideak gauzatzeko.
3. Adieraztea Nafarroak urte askoan eta bizi-bizi pairatu duela ETaren terrorismoa, eta errealitate hori aitortzeko egiten ari diren urrats positiboak balioetsi arren, gaur egun oraindik ere guztiz beharrezkoa dela indarkeria erabili zutenek edo indarkeriari babes sozial eta politikoa eman ziotenek hausnarketa etiko integral bat plazaratzea.
4. Arbuiatzea terrorismoaren biktimen eta horien senideen duintasuna eta memoria urratzen dituzten ekintza guztiak.
5. Indarkeriaren kulturaren aurrean, estrategia integral bat garatzea, desberdinen arteko elkarrizketa, bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideen errespetua bultzatuko dituen.
6. Belaunaldi berriek terrorismoaren izuaren berri izan dezaten bultzatzea, biktimenganako enpatia sustatuz, abian jarritako hezkuntza-programen esparruan, hala nola Memoria duten Eskolak Bakea eta Bizikidetzeta Lantzen, De la mano/Eskutik eta Nafarroako hezkuntza-curriculumean txertatutako unitate didaktikoak.